

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Jendaurrean jartzea zabor bilketaren tasaren 2016ko errolda

Zabor bilketaren tasaren 2016ko errolda jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Ordainagiriak 2016ko urriaren 8tik abenduaren 9ra bitartean, egun biak barne, ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

Ordaintzeko modua

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak zuzenean kudeatuko du zordunketa, ordainketa helbideraturik dagoen finantza erakundeetako kontuetan, 2016ko abenduaren 9an.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (abisuarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (MiPago).

Gomendioak

Nola bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, hala bizileku aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu behar dira.

Adierazitako epea bukatutakoan, ordaindu ez diren kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergen orokorrak, ezartzen duen errekararekin.

Legutio, 2016ko irailaren 6a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA